

7.ekar ILUSTRAZI ETA IPUIN LEHIAKETA

SENDAGAIA

J. M. Olaizola "Txiliku"

Nahi duzu ipuin bat kontatzea?

Zatoz hona, eser zaitez nire magalean eta kontatuko dizut.

Bazen aspaldi-aspaldi Urruntxina izena zuen eta munduaren bazter batean zegoen lurralde bat. Heilongtxian izeneko ibai zabal batek zeharkatzen zuen lurralde hura.

Badakizu zer esan nahi duen Heilongtxian horrek?

Dragoi Beltzaren ibaia esan nahi du, baina gure mapetan ez da ageri. Izen horren ordeztan *Amur ibaia* ageri da gure mapetan, seguru asko guretzat errazago delako Amur esatea Heilongtxian esatea baino.

Tira, berdin dio.

Esan nahi nizun Urruntxinan bazela etxe dotore bat lau teilatu gorri zituena. Urruntxinako etxe dotoreek eta hango jauregiek eta elizek teilatu asko izaten dituzte, Ekialde Urruneko pagoden antzera: hiru, lau, sei, zortzi...

Gure ipuineko etxeak lau zituen, eta baita lau baratze ere. Etxean bi agure zahar bizi ziren; batek ile luzea zuen, besteak bizar eta bibote luzeak.

Biek zaintzen zituzten baratzeak eta biek sarri egiten zuten barre, zoriontsuak baitziren.

Etxetik abiatu eta lur-sail luze bat zegoen itsasoraino, eta lur-sail horretan lau lauki eta lauki bakoitzean baratze bat.

Lehenengoan lau sagarrondo zeuden, bakoitza laukiaren ertz batean, udazkenean sagar gorri-gorriak ematen zituztenak, eta erdian gari-soro bat, berdea udaberrian eta horia udan.

Bigarren laukiaren erdi-erdian lau limoiondo zeuden, eta haien inguruan arroz-sail bat, berdea udazkenean eta horia udaberrian.

Hirugarren baratzean hainbat motatako barazkiak zeuden, lurraren gainean kolorezko marrak eginez, eta laukiaren lau ertzetan lau mandarinondo.

Azkeneko lur-saila itsasoraino iristen zen eta hiru aldetatik hesitutako larre bat zen. Larrean zazpi ahuntz zeuden, eta tximino batek zaintzen zituen.

Itsasoaren aldetik irekia zegoen zelai hori, eta labarren gainean, zutik, muxikondo bat ozeano Bareari begira. Aurrez aurre antzeko beste arbola bat zegoen, muxikondo bat hura ere, muxika horixkak ematen zituena. Itsasertzekoak ez. Itsasertzeko zuhaitzak muxurka gorri-moreak zituen, barrena odolaren kolorekoa zutenak, tximino baten bihotzaren antzekoak.

Tximinoa ahuntzen artean egoteaz aspertzen zenean, itsasertzeko arbolaren gainera igotzen zen, eta han zegoela, marrazo gazte bat etortzen zitzaion itsasoko aldetik ia egunero.

–Nahi duzu muxurka bat? –galdetzen zion tximinoak marrazoari.

–Zer da muxurka? –galdetzen zuen marrazoak, eta tximinoak esaten zion muxurka fruta bat zela, barrena tximino baten bihotza bezain gozoa zuena.

Marrazoak ezetz erantzuten zion, marrazoek ez dutela frutarik jaten. Hala ere, biek berriketan jarraitu ohi zuten, Urruntxinako animaliak berritsuak baitziren garai hartan.

Egun batean, marrazoak esan zion tximinoari:

–Zatoz nirekin! Itsasoko erresuma handia erakutsiko dizut.

–Nola joango naiz zurekin? Busti egingo naiz, hondoratu egingo naiz, ito egingo naiz.

Marrazoak esan zion:

–Ez, horregatik! Nire bizkar gainean jartzen bazara, nik eramango zaitut, eta ez zara bustiko, ez zara hondoratuko eta ez zara itoko.

Jarri zen tximinoa marrazoaren bizkar gainean, eta han joan ziren biak itsas erresuma ezagutzera. Marrazoak erakutsi zizkion itsasoko bazter guztiak eta halako batean itsasoko marrazo guztien erregearengana eraman zuen tximinoa. Marrazo guztien erregeak esan zion tximinoari:

–Asko pozten naiz zu hemen ikusteaz, gure alaba printzesa txit gorena oso gaixo dago eta sendagileak esan dio tximinoaren bihotza dela haren gaitzarentzat sendagairik onena.

Tximinoa erabat ikaratu zen, pentsatuko duzun bezala. Bihotzik gabe ez dago bizitzerik! Buruz bizkorra zen, ordea, eta azkar baino lehen erantzun zion marrazoen erregeari:

–Nire bihotza diozu? Ez dakit zergatik ez didan ezer esan nire adiskide marrazoak. Jakin izan banu! Baina nik ez jakin! Zuhaitzean utzi dut bihotza. Berriro lehorrera eramaten banau hartuko dut eta emango diot.

–Eraman ezazu tximino hau lehorrera! –agindu zuen marrazoen erregeak.

–Zure aginduetara! –esan zuen marrazoak, eta oraindik bizkar gainean zeraman tximinoa lehorreraino eraman zuen.

–Azkar, azkar! –esaten zion tximinoak marrazoari–. Goazen lehenbailehen zuen erregearen alabarentzat sendagai bila!

Iritsi ziren lehorrera, tximinoa igo zen muxikondoaren gainera, eta, handik, esan zion marrazoari:

–Nire bihotza nahi baduzu, igo zaitez arbola gainera, hemen daukat eta.

–Ezin naiteke uretatik irten. Lehorrera joango banintz hil egingo nintzateke. Bota ezazu itsasora, eta nik hartuko dut.

–Ezin zintezkeela lehorrera etorri? Orduan ni zu baino bizkorragoa naiz! Denbora guzti honetan hementxe eduki dut bihotza nire barrenean, baina ez nizun eman nahi eta ez dizut emango! Zoaz esatera zure erregeari beste sendagai bat bilatu beharko duela alaba sendatzeko!

Noiz edo noiz Heilongtxian ibaia itsaso Barera iristen den lekura joaten bazara, begiratu ondo, eta, agian, hantxe ikusiko duzu marrazo bat zuhaitz baten gainean dagoen tximino bati begira.

Zenbaitetan tximinoa zuhaitzetik jaisten omen da, larrean dauden zazpi ahuntzei zintzo portatzeko esan, eta lau teilatuko etxera joan.

Bi gizon zaharrek arroz egosia ematen diote egurrezko katiluan eta tximinoak bere esku txikiekin hartu eta jaten du arroza.

Dena amaitzen duenean, tximinoak kontatzen die zaharrei nolako jukutria egin zien marrazoei, eta zaharrak barrez lehertzen dira.

Tximinoak, ordea, eskua bularraldera eramaten du, bihotzaren taupadak entzutea gustatzen zaio.

Eta zuri, gustatu al zaizu kontatu dizudan ipuina?